

afrodita ahalduna
mighty afrodita



02

the balde

april | may
april | mai

39

39



the balde

antsoain 1
31014 iruñea
t. +34 948 12 19 76

kristobaldegi 14
20014 loiola donostia
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 686 485 980

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com · komertziala eragin sll

editore / editor: iñigo martinez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director

& publizitatea / publicity: iñigo martinez

diseinua / design: martin etxauri, txuma vazquez, marisa mantxola, sonia beroiz, ainara gorostiaga, ekaitz auzmendi, angel aldarondo, igor astigarraga, iker bereziartua.

itzulpenak / translations: smiley, amaia orella, elixabete ansa

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz villar, uxeta labrit, angel lara, david zapirain, borja izagirre, ion olano, kevin heredia.

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: oskar alegria, frann rezende, the balde crew,

komikia / comic: txol?

harpidetzaren orria / subscription page: "thebaldeisagate" squad

azaleko irudia / cover image: frann rezende

aurkibidea / summary: txuma vazquez-san

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiak honako lizentzia pean daude:

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehatzetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



Eusko Jaurlaritzako
Kultur sailak diruz
lagundutako aldizkaria




Lan berritzaille, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:

Imaginative, provocative and interesting works? send them to:

info@thebalde.net

LABURRAK IN BRIEF



BALIZKO ARKITEKTURAK

Jaques Rougerie arkitektoaren balizko eraikuntzak James Bond-en pelikuletatik aterata daudela dirudi. Lurra, itsasoa eta espazioan kokatzeko egin dituen proiektu hauetan, irudimenak ziurrenik baliabide teknikoak baino pisu handiagoa du, eta hain zuzen ere horregatik iruditzen zaizkigu interesgarri. Bere webgunean azken hamarkadetan eginiko proiektu eta prototipo ezberdinak dituzu ikusgai.

www.rougerie.com

THE VIRTUAL ARCHITECTURE

The architecture of Jaques Rougerie seems part of the scenery of a James Bond movie. The location of his projects on the earth, the sea and space, in general, are charged with imagination, more than mere technique. And that is why we find them so interesting. On his web page you can find different projects he has completed in the past ten years.

www.rougerie.com

2SEX69 (APIRILAK 18 EKAINAK 10)

"El niño de los colores" izenordez ezaguna den artista ekarriko dute Bilbora Sey Colors galeriak. Lehendabiziko aldiz kale-arte ibilbidea antolatu dute eta Granadako artistak bere liburu berriaren aurkezpena egingo du. Apurka-apurka, ikuspegi berri batekin lan egiten duten galeriak irekitzen ari dira inguruan... zorionekoak gu!

www.seycolors.es

2SEX69 (APRIL 18TH JUNE 10TH)

The gallery Sey Colors will bring to Bilbao the artist called "El niño de los colores." For the first time, a "street-art" tour has been organized and the Granadian artist will present his new book in there. Little by little, galleries with new thoughts and perspectives are being open in our surroundings... Good for us!

www.seycolors.es

STREET ART TOUR IN BILBAO



GIZA ESKUBIDE ZINEMALDIA (APIRILAK 16/25)

Seigarren ediziora iritsi da geroz eta arrakasta handiagoa duen Giza Eskubideen Zinemaldia. Izenari jaramon eginez gero gobernuaz kanpoko erakunde bilerak dirudi baina azken urteotako edizioetako programetan, politikoki zuzena den jarreratik urrun dagoen aukera anitz eta benetan interesgarria eskaini digute. Eta aurtengoak ere itxura berdina du...

www.cineyderechoshumanos.com

HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL (APRIL 16/25)

It's already the sixth edition of the Human Rights Film Festival, a festival that is more and more successful every year. Considering the name, one would think that we are talking about a non-governmental meeting, but in the past years, we've found several interesting projects that are far from any political direction. This year's program seems to follow a similar path...

www.cineyderechoshumanos.com

Estrella Damm PRIMAVERA SOUND'08

ESTRELLA DAMM PRIMAVERA SOUND 2008 MAIATZAREN 29TIK 31RA. BARCELONA, PARC DEL FÒRUM

808 State, A Place To Bury Strangers, Alan Braxe, Animal Collective, Apparat Band, Dj Assault, Atlas Sound, Autolux, Awesome Color, Berlinbattery feat. Shir Khan Dj Supermarkt & Malente, Bèstia Ferida, Bill Callahan, Bishop Allen, Bob Mould Band, Bon Iver, Boris, British Sea Power, Buffalo Tom, Caribou, Cat Power, The Clientele, Clipse, The Cribs, De La Soul, Deerhunter, Devastations, Devo, Digital Mystikz, Dinosaur Jr., Dirty Projectors, Dr. Octagon aka Kool Keith + Kutmasta Kurt, Edan & MC Dagha, El Guincho, Ellen Allien, Enon, Eric's Trip, Explosions In The Sky, Fanfarlo, The Felice Brothers, Fuck Buttons, Dj Funk, Gentle Music Men, The Go! Team, Grande-Marlaska, Health, Holly Golightly & The Brokeoffs, Holy Fuck, It's Not Not, Kavinsky, Kinski, La Estrella De David, La Orquesta Del Caballo Ganador, Les Savy Fav, Lightspeed Champion, Madee, Man Man, The Mary Onettes, Mary Weiss of The Shangri-Las, The Marzipan Man, Matt Elliott, Menomena, Messer Chups, MGMT, Mi and L'au, Midnight Juggernauts, Mission Of Burma, Mixmaster Mike, Model 500, Moho, Mount Eerie, MV & EE with The Golden Road, Nick Lowe, No Age, The Notwist, Okkervil River, Om, Para One, Pissed Jeans, Polvo, Port O'Brien, Portishead, Prinzhorn Dance School, Public Enemy performing It Takes A Nation Of Millions To Hold Us Back, Robert Hood, Rufus Wainwright, The Rumble Strips, Scout Niblett, Sebadoh, Shellac, Shipping News, Silver Jews, Simian Mobile Disco, Six Organs Of Admittance, SJ Esau, The Sonics, Stephen Malkmus & The Jicks, The Strange Death Of Liberal England, Subterranean Kids, Supermayer, Surkin, The Swell Season, Tachenko, Tarántula, Thomas Brinkmann, Throbbing Gristle, Tiefschwarz, Times New Viking, Tindersticks, Träd Gräs och Stenar, Vampire Weekend, Vórtice, Voxtro, The Wave Pictures, White Williams, Why?, Young Marble Giants

Apirilaren 15a arte
hiru egunetako abonua 135 €
(+ banaketa gastuak)

Saltokiak:
Tick Tack Ticket, CD Drome Barcelona,
CD Drome Madrid, Atrapalo.com,
www.primaverasound.com

Programazioa hemen kontsultatu:
www.primaverasound.com
www.myspace.com/primaverasound

Antolatzen du
**PRIMAVERA
SOUND,**

Babesle nagusia
**Estrella
Damm**

Babesle ofiziala
Jägermeister


Babesleak

Laguntzaileak

Laguntzaile instituzionalak

Sarreraren salmenta





CELLO TAPE LIGHT AND SHADOWS

SOS 4.8 JAIALDIA

Murtzian... artea eta garapen sostengatuaren ideiaren inguruan jaialdia antolatu dute. Jaialdien gaindosia dagoen garaietan, ikuspuntu ezberdina duten proposamenak eskertzekoak dira eta SOS 48-k merezi duela iruditzen zaigu. Disziplina ezberdinetako artista ugari eta interesgarri asko dagoenez ez ditugu izendatuko. Jaialdiaren webgunean duzu informazio guztia.

www.sos48.com

SOS 4.8 FESTIVAL

In Murcia... 'they've organized a festival around the topic of art and developmental support. In a moment where festivals bloom everywhere, a new perspective is appreciated and SOS 48 is worth visiting for that reason. There are so many interesting artists that come from different disciplines that we are unable to mention them all. You'll find all the information on their web page.

www.sos48.com

THEWHALEHUNT

Bale arrantzale Inuit-en bidaia bizitzeko gonbidapena egiten digu proiektu honek. Webgunean, oso modu irudimentsu eta jostagarrian aurkezten zaigu nabigazioa. Argazkietan barna bidaiatzen hasten garenean zaila egiten zaigu gelditzea. Road movie izoztu honek sarearen aukerak agortezinak direla erakusten digu.

www.thewhalehunt.org

THEWHALEHUNT

We are invited to follow the journey of a Inuit whale hunter. On their web page, navigation is proposed in a very creative and playful way. It is hard to stop traveling once you get immersed in the pictures. This frozen road movie shows once again, that the entertaining options internet offers are insatiable.

www.thewhalehunt.org



PICTURES ON CELLO TAPE

Special pieces of art. Light and dark effects are achieved using cello tape. It is the art of absolute light. Using water proof cello tape, and a lot of patience, shadows are achieved by Mark Khaisman until he finds the result he wanted.

www.khaismanstudio.com

ZINTA ITSASKOR ERRETRATUAK

Artelan bereziak. Zelo kapak erabiliaz lortzen du argia eta itzalaren jokoak. Argi absolutuaren mundu da mihizea. Zinta itsaskorra erabiliaz, eta pazientzia handiz itzalak sortzen ditu Mark Khaisman-ek bilatzen duen emaitza topatu arte.

www.khaismanstudio.com

FESTIMAD SUR 08
 JAIALDIAN JO NAHI DUZU?
 www.festimad.es webgunean
 sartu eta Festimad Sur Music
 lehiaketan parte hartu.



FESTIMAD SUR

2008KO EKAINAK 6 ETA 7 - ESTADIO BUTARQUE LEGANÉS - WWW.FESTIMAD.ES

BIODIVERSIDAD MUSICAL

OSTIRALA EKAINAREN 6A

EMIR Kusturica & The No Smoking Orchestra

LARUNBATA EKAINAREN 7A

LINKIN PARK

EMANALDI BAKARRA ESPAÑAN

eta artista gehiago konfirmatzeke

EROSI ORAIN ZURE SARRERA MERKEAGO!

Ekainak 6: 15 €. Ekainak 7: 48 €. ABONOA: 58 €. Banaketa gashak aparte (B.E.Z. barne).
 Eskaintza hau 2008ko maiatzaren 6an amaituko da. Aforo mugatua.

902-15-00-25
 FNAC, CARREFOUR,
 TIPO y puntos de venta
 ticketmaster.com

VENTA DE ENTRADAS
 ServiCaixa
 902 33 22 11
 (SERVICAJA.COM)

FNAC, CARREFOUR, TIPO, DENDAK, HALCÓN, BIDAIK, SERVICAJA, KLITZAZAIN,
 AUTOMATIKO SAREA ETA SPRINT POINT, TELEFONO BIDEZKO SAIMENTA: 902 15 00 25
 (TICK, TACK, TICKET) ETA 902 332 211 (SERVICAJA)

ADIN GUZTIETAKO entzulegoari sarrera baimenduta (18 urte azpikoak helduek lagunduta bakarrik).

BABESLEGO INSTITUZIONALA



KOMUNIKABIDE OFIZIAK



LAGUNTZAILEAK



INFO: 915 220 359 INFO@FESTIMAD.ES


Break on Stage

BILBAO 2008

Kale kulturen nahaskia
 Revuelto de culturas urbanas

APIRILAK
19
 20:00
LA CASILLA

www.breakonstage.com



TXORI BEGIAK

Zerutik ateratako argazki hauek behin eta berriro ikusi ditugu aldizkari eta euskarri ezberdinetan. Orain argazkilari frantsesak aukeraketa egin eta webgunean zintzilikatu ditu. Ez da proposamen berria baina merezi du txori baten begietatik munduan zehar bueltatxo bat ematea.

www.yannarthusbertrand.com



BIRD EYES

We have seen these pictures, taken from the sky, once and again in varied newspapers. Now, the French photographer has made a selection and uploaded them on his web page. It is nothing new but it is always worth traveling around the world with the eyes of a bird.

www.yannarthusbertrand.com



BIRIKA ETA BIHOTZ BERDEA

GLOBAL FUNK GAUA BUKOWSKYN (APIRILAK 12)

Le Bukowsky berria ireki zutenetik, bertan dagoen Bellmondo bistro primeran jateaz gain, makina bat talde eta DJ entzuteko aukera izan dugu. Aurpegi berriarekin baina aurreko arimari eutsi dio Egiako taberna mitikoak. Aurrera begira ere, zuzeneko agenda polita ari dira osatzen. Horien artean Global Funk gaua.

www.lebukowsky.com

GLOBAL FUNK NIGHT AT BUKOWSKY (APRIL 12)

Since the new Bukowsky was opened, we have had the chance to attend several concerts and DJ session, besides eating wonderfully well at Bellmondo bistro. The mythic bar in Egia, has changed its face but maintained its spirit. Looking forward, their agenda looks very nice too. Among other events, the Global Funk night.

www.lebukowsky.com

FILM LABURREN V. ZIRKUITUA
ZINEA EUSKARAZ

GENTZANE Ajuria UNREST- 6:30 ALL ABOUT EVES 7:15	MIKEL Alvarez AZKEN TRENA 7:30	KOLDO Almondoz COLUMBA PALUMBUS
ASIER Alonso MOMORRO 6:30	IRAGO Alonso ITZALAK 7:30	LORELA Alonso ARDAUAREN NEGARRA 8:30
KALAGELI Tolosa ANTEOJONUDOAK 5:30	GALZKO Alonso ZERUARI 7:30	TRASTAKA Eskasok BESTALDEAN 1:30

Eguna: _____ Ordua: _____
 Tokia: _____
 Antolatzailea: _____

TOPAGUNEAREN ZINE LABUR ZIRKUITUA


Aurten ere gure geografiako herri ezberdinetan antolatu dira euskal laburmetraien emanaldiak. Euskaraz egiten diren film laburrak, apurka-apurka ohiko gaietatik urrundu eta oso ikuspegi zabala erakutsi dezaketela frogatu dute. Aurtengo "tour"-ean dauden lanak horren erakusle izango dira.

www.topagunea.org

BASQUE SHORT FILM CIRCUIT

Again this year, there are short film screenings in different towns of our geography. Little by little, short movies in Basque are changing their subject matter; they are showing that they can deal with a wide variety of topics. The works presented at the tour this year, will be the proof of that.

www.topagunea.org



restaurante
Urepel
 jatetxea

Salamanca pasealekua 3 20003 Donostia
 www.urepel.net 943 42 40 40

ATSEDEN BILA ?
 LOOKING FOR PEACE ?

harría

www.urepel.net

Interior photos showing dining areas, rooms, and views of the sea and stone buildings.

www.saiazgetaria.com
 34.943.140.143 E. info@saiazgetaria.com
 H. Roke Deuna 25 · Getaria Gipuzkoa




TINTAZKO ITSASOETAN

Christophe Blain komigilearen lana maite dugunontzat (2002. urtean Angoulemeko saria jaso zuen Sfar-ekin batera eginiko "Isac el Pirata" komikiak), ederra izan da Le Reducteur de Vitesse liburuaren deskubrimendua. Komiki honi esker, gure moduko intsumiso alprojek, egileak Frantziako marinan egindako soldaduskako abentura eta desbenturak bizi ahal izan ditugu.

IN A SEA OF INK



For those who love the work of Christophe Blain (in 2002, he won the Angouleme prize with Sfar for their comic on "Isac the Pirate"), the discovery of his book Reducteur de Vitesse has been great! Thanks to this comic book, black sheep like us, who refuse to do military service, have had the chance to live the adventures and misfortunes of marine life in France.

IN BLAIN WE TRUST



OSTADARRA ESKUETAN

Nork ez du ikastolako liburu baten ertzean inoiz marrazki bizidunik marraztu? Bale zuk akaso ez duzu inoiz halakorik egin, baina horregatik zara hain pertsona tristea. Masashi Kawamura-k asmatu duen liburuak pauso bat haratago eman eta sistema horrekin ostadarra eskuetan izatea ahalbideratzen du. Ohhhhhhhh



THE RAINBOW IN YOUR HANDS

Who has never drawn a picture at the margins of a textbook? Ok, maybe you've never done it, but that's why you are such a sad person. Masashi Kawamura's book goes a step farther and offers the possibility to have the rainbow in your hands. Oooooohhh!!



diseinua, internet
eta argitarapenak



LADINAMO
AMBULANTE

egitaraua:
www.ladinamo.org



LDNM Doako Argitarapena
ldnm@ladinamo.org

edukiak online:
www.ladinamo.org/ldnm



**DAME
MAS
GASOLINA**
www.ladinamo.org/blog



LAS AVENTURAS DE
**LOLITO
COHETE**
www.ladinamo.org/lolito

LADINAMOLIBROS www.ladinamo.org/editorial

LADINAMODANZA www.ladinamo.org/danza

LADINAMOTEATRO www.ladinamo.org/teatro

LADINAMODJS www.ladinamo.org/djs

www.ladinamo.org

Mira el Sol, 2.

Metro: Lavapiés eta Embajadores

kolore basatien garajea
wild colour garage



alkandora / blouse sinéquanone
gona / skirt toypes
gerrikoa / belt toska blu
zapatak / shoes el dantes
osagarriak / complements eferri

argazkilaria / photographer framm rezende
estilismoa / stylist alba ors
orrazkera / hairdress framm rezende for techni art de loreal
makilajea / make up sandra saavedra for make up store
modeloa / model laura medina (www.groupmodels.com)



soinekoa / dress cavalli
lepokoa / necklace morgan
osagarriak / complements eve & ray
besokoa / badge dyberg kern
belarritakoak / earrings daniel espinosa



sohokoo / dress photos
botak / boots Renarina




bainujantzia / bathsuit vivarini
konbinazioa / combination phobos
gerrikoa / belt liu jo
zapatak / shoes el dantes
eskumuturrekoa / bracelet anillarte

no comment



argazkia / shot:uxeta labrit · costa rica





Public animal: A many-faced character that bides its time inventing tricks. A creature that blends into its surrounding environment and quickly adapts to any sudden unexpected changes that may occur to its everyday scenery. That permeable, slippery, organ-less place called a street, where you can experience the crudest desolation, but where it's also possible to escape from by just changing direction, by disobedience, by deserting, by doing all of them alone or with a crowd.

Public space: A space strictly controlled by all the powers that be, for the very same reason that it most appropriate place for escape and emancipation.

The public animal. Towards an anthropology of urban spaces.
Manuel Delgado

retake the streets!



Irudi hauek, Apirilean Tailandian ospatzen den Son Kran urte berriaren festan ateratakoak dira. 3 egunetan zehar, hiritarrek kalea hartu eta euren kaxa antolaturiko festa ospatzen dute.



kalea berreskuratu!

argazkiak/shots: maider lete, igor astigarraga

Animalia publikoa: Aurpegi anitzeko pertsonaia, trikimailuak asmatzen denbora pasatzen duena, ingurunearekin nahastu eta bat batean sortzen diren egunerokotasunaren paisaia ezezagun, kalkula ezin eta aldagarriak gurutzatu eta hauetara moldatzen dena. Kalea deritzogun eremu iragazkor, labainkor eta organorik gabekoan, non desolaziorik latzena bizi daitekeen baina zeinetik posiblea den ihes egitea, norabidez aldatzea, desobeditzea, desertatzea eta guzti hau banaka edo masan egitea.

Espazio publikoa: Botere guztiek zorrozki zelatatzen duten espazioa, berez, emantzipazio eta ihesaldietarako aproposena delako.

El animal público. Hacia una antropología de los espacios urbanos.
Manuel Delgado



These photos were taken in Thailand during the Son Kran New Year's Festival celebrated in April. For three days, citizens take to the streets, make them their own and organise the festival as they see fit.

immortal
technique

“terrorismoa
galdera zuzenari emandako
erantzun okerra da”

“terrorism
is the wrong answer to the
right question”



testua / by: ángel luis lara from LDNMtik
argazkiak / shots: yolanda pivald
ilustrazioa / Illustration: txo!?

New York hiriko hip hop oholtzetan ozen eta garbi entzuten da Immortal Techniquearen (Lima 1978) ahotsa. Harlem auzoan hezia eta auto-ekoizpenaren defendatzaile sutsua, Viper Records zigiluaren zuzendaria da. 2003an bere bigarren lanaren laurogei mila ale saldu zituenetik (Revolutionary vol. II), bere errimen indarrak industria astindu eta underground-a bere eremu bihurtu du Chuck D, KRS-One eta Mos Def bezalako aitapontekoekin.

Larunbat eguerdia. Harlemeko 125. kalea bizi-bizi dago. Dendetako atarrietan dauden baffleak edo eta postu ibiltarrietan esekitakoetatik ateratzen den musikak guztia bereganatzen du, fast-food jatetxeak eta karrotoak bultzatzen dituzten "homeless"-ak barnë. Ez da zuririk ikusten. Ordu erdiz itxaron ostean eta urdiri dirudien "crack" yonki batekin izandako hiru elkarrizketa surrealisten ostean Immortal Technique azaldu da, kopetilun eta begi zulo nabarmenekin. "Berandu arte egon nintzen estudioan lanean", esaten digu bere beisbol kapela jantzi eta rapero handi askoren sehaska izan diren "Projects" (familia txiroentzako etxeak) blokeen arteko eramateko gaituen bitartean. Bidean ez du apenas hitzik egiten. Auzoko gazte normal baten itxura du. Inork ez luke esango, urtebete kartzelaturik pasa ostean, NY-ko "inprobisazio guda" hantza gora jarri zituen tipoa denik, edo 2003an *Source* aldizkariaren Hip & Hop Quotable Prize jaso ostean, sari garrantzitsu hau jasotzen zuen diskoetxe kontraturik gabeko lehen MC-a denik. Suntsituta dagoen saskibaloi kantxa batean hasten gara hizketan.

Harlem-en bizitzen jarraitzen duzu...

Jakina, hemen hazi eta bizi izan naiz beti, Pennsylvaniako kartzela batean pasa nuen urte hura kenduta. Orain polizia eta denda gehiago dago, auzo berri bat sortu nahi dute, baina ez auzoko jendearantzat. Columbia Unibertsitatea oso gertu dagoenez etxeak konpontzen ari dira, alokairuak igotzen eta ikasle zuriak erakartzen. Izugarria da ikasle zuriak ordaintzen duten dirutza pobreen "project" etxeetan bizitzeko (barrea). Ez, baina arazoa serioa da. Gure jendea euren etxeetatik botatzen dute metrailetaren indarrez edo ordaindu ezin duten alokairuak ezarriaz. Zorionez bizilagunak konturatzeko ari dira eta antolatzen hasi dira.

Zure estudioa ere hemen dago?

Bai, hemen egiten dugu lan eta hemen egiten ditugu gure kantuak

Zer da zuretzat konposatzea?

Guda pertsonal bat da, nire buruaren zati baten aurkako borroka, ni hemen bizi naizelako, AEBtako makinaren zati bat naizelako. Ez dut gudaren bizkarrera eta munduaren pribatizatzeari esker milioiak ateratzen dituzten horietako bat izan nahi. Hori da nire guda.

Eta guda horretatik...Nola ikusten duzu AEBtako hip hop panorama?

Ronald Reaganen garaian egiten zen hip hop-a entzuten duzunean, raperoek kalean benetan gertatzen ari zenez kantatzen zutela jabetzen zara. Egungo hip hop-a entzuten duzunean ez zara gudan gaudela jabetzen, krisi ekonomikoa, langabezia, drogarik lotuta dagoen jendeaz ez da hitz egiten. Mainstream hip hop-a kotxeak edo telefonoak saltzen dizkizuten iragarkien modukoa da. Telebista ikusten duzunean gure musika auzoetan sartu eta edozer gauza saltzeko erabiltzen dutela jabetzen zara. Latino eta beltzek ez dugu botere politikorik, baina badugu ekonomikoa, eurek guretzat egiten duten produktu pilo batean gastatzen dugulako gure dirua, gehienetan ezertarako behar ez ditugun gauzetan gainera.

Akaso negozioan, dirua metatze horretan obsesionaturik bizi gara...

Bai. Hip hop-aren munduan, goian dagoenak "begira nire kotxeak eta diamanteak" besterik ez du esaten. Baina hori ez da arazorik larriena, okerrena da irabazten duten dirua ez dutela euren jendearen eta auzoetan inbertitzen. Nondik datozen ahazteko entrenatuak daude. Industria nondik gatozen ahaztu eta festa kantuak soilik egin ditzagun nahi du. Hori da espainieraz egiten den hip hop-a eta reggaetonak duten arazorik larriena.

Zein arazo duzu ba festa eta reggaeton-arekin?

Ez dut arazorik, niri ere gustatzen zait ongi pasatzea. Baina niretzat emakume latinoak kanta horietan azaltzen dena baino askoz gehiago ere bada. Ezagutzen dut festa gustatzen zaion emakume piloak, baina horretaz gain garuna ere baduena, abokatua, langilea eta ama dena. Industriak gure jendearen zati bat soilik erakusten du eta modu horretan ahotsa kentzen digu gure bizitzak dimentsio hori soilik izango balu bezala aurkezten gaituelako.

Immortal Technique's voice (Lima, 1978) is heard loud and clear in NY's hip hop scene. Raised in Harlem and a defender of auto production, he is the president of the independent company, Viper Records. Since he sold 80,000 copies of his second album in 2003, the forcefulness of his lyrics has broken through the industry and spilled over into the underground with sponsors such as Chuck D, KRS-One and Mos Def.

It is Saturday noon. 125th street, the center of Harlem, is full of life. There is music all over the place, the market stalls, fast food shops and the homeless pushing their ramshackle carts. There is no white person around. After half an hour of waiting, and three surrealist conversations with a nervous crack addict that we try to avoid, Immortal Technique appears with a disagreeable look on his face and dark circles under his eyes. "I stayed up late working on the studio" he says while he puts his baseball hat on and he guides us through the projects, apartments for people with no economic resources and cradle of many famous rappers. He doesn't talk much on the way. He looks like a normal kid in the neighborhood. Nobody would guess that he was the guy that messed up the improvisation scene in New York after being in prison for a year or the rapper who received the Hip Hop Quotable by the *Source* magazine in 2003, becoming the first MC that received this important award without being part of a big record company. Once we get to a rickety basketball court, we start the conversation.

You still live on Harlem...

Sure, this is where I grew up and have always lived, except for the year that I spent in a prison in Pennsylvania. Now there are more police and more stores and they want to create a new neighborhood, but not for the people from the neighborhood. Since Columbia University is really close, many houses are being fixed, the rent is increasing and many white students are coming. The amazing thing is that white people are paying enormous amounts of money to live in the poor people's houses (laughs). But the problem is serious. Our people are kicked out of their houses at gunpoint or they increase the rent so much that we cannot afford it anymore. Luckily, the neighbors are beginning to be aware of this and are getting organized.

Your studio is around here?

Yes, this is where we work and compose our songs.

What does composing mean to you?

For me, it is a personal battle; a battle against a part of my self because I live in this, I am part of the USA machine. I don't want to be like those who make billions from the war and from privatizing the world. That is my battle.

From that battle, how do you see the hip hop scene in the US?

When you listen to the hip hop from Ronald Reagan's time, you see that rappers talked exactly about what was going on in the streets. If you listen to the current hip hop, you don't hear anything about the war, the economical crisis, unemployment or people addicted to drugs. The mainstream hip hop is like an advertisement that sells cars or cell phones. When you watch TV you realize that they use our music to get into the neighborhoods and sell us whatever they want. The Latinos or the black people don't have the political power but we have the economic power because we spend a lot of money on the products they make for us and most of the time, these are things we don't need at all.

There might be some kind of obsession with the business, with making money

Yes, people who are at the top in hip hop only say "look at my cars and my diamonds". But that is not the main problem. The problem is that they don't invest any money that they earn in their people, in their neighborhoods. They are trained to forget where they come from. The industry is obsessed with us forgetting and singing only party songs. That is my main problem with hip hop in Spanish and reggaeton.

So, what is your problem with parties and reggaeton?

None. I also love to have fun. But, to me, the Latino woman is much more than what the songs say. I know a lot of women who love to party, but they also have a brain and they are lawyers, workers and mothers. The industry shows only what they want about our people and that's how they take our voice away because our lives are shown as if they only had one dimension.

Latinoak aipatzen dituzu, Nola ikusten duzu iaz AEB-ak astindu zuen etorkin mugimendua?

Independentsia mantendu behar du, ezkerak edo eskubiak kontrolatzea lortzen badu ezertan geratuko delako. Herrialde honetan ezkerria eta eskubia gauza bera dira. Bere burua ezkeriartzat duen asko etorkinen aurka dago eta arrazista da, baina etorkinak dira herrialde honen odola. Lan egingo ez balute, nork zainduko lituzke gringoen haurrak? Nork garbituko lituzke euren jantziak eta nork egingo haiek egin nahi ez dituzten lanak? Orain latinoek esaten dutena zera da, "badakizu? Egiten dugunaren ordaina jaso nahi dugu, edozein amerikar baino gogorrago egiten dugulako lan. Amaitu da esklabo izatea". Nire betebeharrak horri ahotso ematea da, nire jendeak herrialde hau aurrera ateratzeko nola sufritzen duen eta bizitza nola ematen duen kontatzea

Garrantzi handia ematen diozu independentziari, gehien bat zure musikan. Zer da zuretzat independente izatea?

Edozein gairi buruz hitz egiteko libre izatea eta nire kulturarekin eta nire jendearekin zerikusirik ez duen gringo zahar bat bizkarrean ez izatea zer egin behar dudana esanaz. Ni ez naiz Wall Street-era joaten zer egin behar duten esatera, baina haiek egunero izoratzen gaituzte.

Eta nork argitzen du egun AEBtan eskenatoki independentea?

Hortxe daude Dead Prez, Akir, Hasan Salaam eta beste batzuk. Kotxeak eta dirua soilik ahotan ez duen jendea. Egungo egoeraz mintzatzen dena, ez dugu ahaztu behar guda batean gaudela.

Zu gudaren aurka azaltzen zara ahal duzun guztietan...

Bai, hara eramaten gaituztelako interes ekonomiko bat defendatzera eta herrialde hau askatasunaren defendatzaile gisa aurkezten digutelako. Politikarien kanpainak ordaintzen dituzten konpainien interesak soilik defendatzen dituzte. Afganistan bezalako herrialdeetan integritasua eta terrorismoak gora egin du AEBtako gobernuak herrialde horietan ezkerren suntsiketa bideratu duelako eta modu horretan txiroek ez dutelako euren egoera latza salatzei aukerarik izan. Terrorismoa galdera zuzenari emandako erantzun okerra da: Nola iritsi gara egoera honetara? Zergatik daude ezberdintasun sozial hain nabarmenak? Nola da posible Brasil edo Kolonbian aberatsek helikopteroa erabili behar izatea kaleko bahiketarako saihesteko?

Zein izan zen zure ikuspuntua aldarazi zuen azken hip hop kantua edo bertsoa?

Ez dut uste bertso edo kantu bat izan zenik. Chuck D edo KRS-One bezalako artistekin hitz egin eta industriari hip hop-a nola aldarazi zuen azaldu zidatenean aldatu nintzen.

Zure auzoko gazte batek hip hop musika entzuten hasi nahiko balu zer gomendatuko zenioke?

The Message, KRS-One, Run DMC, Slick Rick-ren *Children's Story* edo Public Enemy-ren *Fight the Power*...hip hop-a sortu zuen jende guzti hori, zerbait ulertu nahi baduzu sustraietatik heldu behar duzulako. Adierazteko dugun modurik boteretsuena da hip hop-a, ez zarelako soilik gure jendearengana iristen, aberatsen semeek ere entzuten dutelako. Normalki ez dugu ahotsik izaten baina hip hop-arekin mundu guztia ari da guk esaten duguna entzuten. Horretan hutsik egin nahi ez baduzu, aurrera nola egin eta zure patuaren jabe izatera iritsi nahi baduzu, hip hop-aren historia ulertu behar duzu.

www.immortal-technique.com

www.myspace.com/immortaltechnique

Now that you are talking about Latinos, what do you think about the immigration movement in the US last year?

It has to keep its independence because if it is controlled by either the left or the right wing, it will never be anything. The right and left in this country are the same. Many people who claim to have left-wing views are against migrants and are openly racist, but they are the blood of this country. If there were no Latinos, who would take care of the Yankees' children? Who would wash their clothes or do the work they don't want to do? What Latinos are saying now is: You know what? Now we want to benefit from what we do because we work harder than any American. My mission is to give a voice to that, to tell how my people suffer and give his life so that this country can get ahead.

You attach much importance to independence, especially in your music. What is being independent for you?

To be free to talk about any topic and not have anybody over me who has nothing to do with my culture, an old Yankee who hasn't lived the life that I have, who doesn't understand my people's culture, but tells me what I have to do. I don't go to Wall Street to tell them what to do but they fuck us up everyday.

So who drives the current independent scene in the US?

Dead Prez, Akir, Hasan Salaam and some others. People who don't only talk about cars and money, but about this country's situation, because we cannot forget that we are in a state of war.

You declare yourself against war...

Yes, because they take us there to protect their economic interest and they show this country like the defender of liberty. They only protect the interests of the corporations, which are the ones that pay the politicians' campaigns. Fundamentalism and terrorism have increased in countries such as Afghanistan because the US government supports the destruction of the left wing and poor people have not been able to use it to express their unhappiness. Terrorism is the wrong answer to the right question: How did we get to this situation? Why are there so many social inequalities? Why do rich people in Brazil or Colombia have to take helicopters because if they walk on the streets they can be kidnapped?

What was the last hip hop verse that changed your point of view about something?

I don't think it was a verse or a song. I changed when I talked to artists like Chuck D or KRS-One and told me how industry transformed the meaning of hip hop.


If a kid in your neighborhood asked you what he has to listen to in order to get started in hip hop, what would you say?

The Message, KRS-One, Run DMC, *Children's Story* by Slick Rick or *Fight the Power* by Public Enemy. All those people created hip hop. If you want to understand something, you have to grab it from the very beginning. Hip hop is the most powerful way that we have to express ourselves because it doesn't only get to our people, but rich people's children listen to it too. We don't usually have a voice, but with hip hop everybody is listening to us. If you want to understand how not to fail, how to prosper in that and conquer our own destiny, you have to understand the history of hip hop.

www.immortal-technique.com/

www.myspace.com/immortaltechnique





AUDIO

testua/by: arkaitz villar



A Gran Bilbao Tribute to THE VELVET UNDERGROUND & NICO

Le Brutal Records 2008

Ezin disko hau gomendatu Alvaro Brutus musikaria eta batez ere musika zaleak azkeneko urteetan burututako lana txalotu gabe. Disko originalak berrogei urte bete behar zituela aitzaki hartuta omenaldi hau egitea bururatu zitzaion. Talde andana bildu du horretarako: Le Noise "Sunday Morning", Audicen + Eten "The Black Angel's Death Song", Capsula "Run Run Run" edo Eorann "All Tomorrow Parties" besteak beste. "Venus in FM (Venus In Furs)" grabatzeko Xabier Erkizia eta Rober! Atom Rhumbako Álvaro eta Iñigo (cabezadefuego) eta Aidarekin (Lisabö oiha) elkartu ziren. Handia!

We couldn't recommend this record without also applauding the work carried out over the last few years by musician, and above all fan, Alvaro Brutus. Seeing that the original was about to celebrate its fortieth anniversary, he hit upon the idea of a homage. He got a whole bunch of bands together: Le Noise "Sunday Morning", Audicen + Eten "The Black Angel's Death Song", Capsula "Run Run Run" or Eorann "All Tomorrow Parties" are just of a few on show. To record "Venus in FM (Venus In Furs)" Xabier Erkizia and Rober! Atom Rhumbako Álvaro, along with Iñigo (firehead) and Aida (ex-Lisabö) got together. Magic stuff!

Hotsak dantzan

Dantza Baltza 2008

Asko dira gurean ezkutuan lan egiten duten musikari eta ekoizleak. Horietakoa da Jimmy Bidaurreta: Gasteizko Big Bandaren zuzendaria, Ortophonkeko musikaria azken urteetan eta Makala bezalakoan alboan aritu izan dena. Oraingoan Gaztelupeko Hotsak zigiluaren katalogoan barneratu eta hainbat kantu moldatzea egokitu zaio. Bere ekarpena dotorea izan da eta doinu latino zein elektronikoekin nahastu ditu beste batzuen artean Tapia eta Leturia, Morau, Petti, Sextysexers edo Kokein.

There are a lot of musicians and producers working behind the local scene here, hidden from the public eye. One of them is Jimmy Bidaurreta: conductor of the Gasteizko Big Band, he's worked alongside musician Ortophonk and Makala amongst others in the last few years. This time round, he's dug into record label Gaztelupeko Hotsak's catalogue and come up with new arrangements for a few songs.. Elegant as always, he visits Latino and electronic airs on Tapia eta Leturia, Morau, Petti, Sextysexers and Kokein to name a few.

Le noise

El Camino a Casa

Noiz Pop 2008

Urte askotako lanaren ordaina eskuratu zuen talde honek joan den urtean Bilbao Hiria Pop Rock lehiaketako sari nagusia irabazi zuenean. Asko aldatu da taldea urteetan zehar eta bere ibilbide luzean hasieratik erakutsitako zinemaren eraginaren bidetik "El Camino a Casa" kaleratu dute, azkenaldian kaleratu den disko interesgarrienetako bat. Nick Cave, Calexico edo Sonic Youth bezalakoan eragina duten kantu handiak bildu dituzte diskoan. Heldutasunarekin asko irabazi duen taldea.

This band were awarded for their many years of hard work when they took first prize at the Bilbao Hiria Pop Rock competition last year. The group has gone through many changes down the years and throughout all this time they have shown their cinematic influence which has resulted in the release of "El Camino a Casa," one of the most interesting records around recently. The record is full of great songs that doff their cap to the likes of Nick Cave, Calexico or Sonic Youth. This lot have really come on.



Cat Power

Jukebox

Matador 2008

"The Covers Records" diskoan erakutsi zigun Chan Marshall-ek bertsoak egiteko duen doia. "The Greatest" estudioko bere azken lanean entzulegoaren onarpena eskuratu zuen. Orain Dirty Delta Blues Bandaren laguntzaz eta bere ahots hauskorrekin Nick Cave "Breathless", Hank Williams "Ramblin' (Wo)man", Bob Dylan "I Believe In You" edo aurretik idatzitako "Metal Heart"-en bertsoiak erakusten dizkigu. Gure "monoa" lasaitzeko dosi ederra. On "The Covers Records", Chan Marshall showed us she is no mean hand at covering other peoples songs. Her last studio album, "The Greatest", went down very well amongst listeners and with the help of the Dirty Delta Blues Band and her sandpaper rough voice, she's now back with Nick Cave's "Breathless", Hank Williams' "Ramblin' (Wo)man", Bob Dylan's "I Believe In You" and the previously written "Metal Heart." A welcoming shot to fight off the craving.

Sorkun & Vicepresidentes

Pias 2008

Alboratu egin du Sorkunek "Duna" diskoan erakusten zuen Morphine bezalako taldeen eragina. Lehen diskoko doinu gordinetara itzuli da. Seriotasuna irabazi du bere lan berrian eta AEBn grabatu izanak Alfredo Hernandez (Kyuss, QOTSA) bezalako musikarien kolaborazioak izaten lagundu dio. Diskoak nabarmentzen duen beste gauza bat letrak idazterakoan erakusten duen eboluzioa da. Doinu hipnotikoetatik gordintasunera egiten dute bidaia abesti berriok. Sorkun has moved on from the work she did on "Duna" that was heavily influenced by Morphine and the likes. She's returned to the raw sound of her first record. The record has gained in professionalism and recording it in the USA has enabled her to have guests like Alfredo Hernandez (Kyuss, QOTSA). Another notable feature of the record is the evolution in her lyric writing. The new songs go from the hypnotic to the blood-raw.

Anari

Bidehuts 2008

2007ko Martxoaren 31an Bilboko Kafe Antzokian eskainitako kontzertuko bost kantu datoz Anariaren lan berrian. Bidehutsen "Zuzenekoak" ekimenaren baitan argitaratua, Zebra diskoaren aurkezpen birako emanaldian entzun zitekeena biltzen da bertan. Bere kantuez gain, Dut-en "Haize Eza" kantuaren bertsoia ere sartu du. Ohiko musikariek lagunduta, zuzenekoaren indarra erakusten du Anarik. Kantu berriak entzuteko itxaronaldia baretzeko opari aparta.

Anari's latest release brings us five songs from the concert she gave at Kafe Antzokia, Bilbao on March the 31st, 2007. Published in the Bidehuts "Zuzenekoak (live)" series, this recaptures moments of the tour to promote the record Zebra. As well as her own compositions, she also includes a version of Dut's "Haize Eza." Assisted by her usual backing group, Anari displays the strength of her live shows here. Something to sep the hunger at bay while we wait for some new songs.



GLOBAL FUNK

GLOBAL FUNK

PRESENTS:

MAKALA + ARKA! dj's

LE BUKOWSKI / DONOSTIA

12/04

WATCH TV dj set

JARDIN DE LA FALERINA / VITORIA- GASTEIZ

01/05

WATCH TV dj set

LE BUKOWSKI / DONOSTIA

02/05

WATCH TV + MAKALA dj

BLACK FEVER / BILBAO

03/05

COLABORACIÓN:

skunkfunk
www.skunkfunk.com

the balde
www.thebalde.net

gezbea

zer jantzi?



diseinu grafikoa
komunikazioa
web diseinua
irudi korporatiboa
edizioa
maketazioa
ilustrazioa
packaging
publizitatea

estudio**bitarte**



marcelo celayeta 75 of. 14. 31014 iruñea
t. 948 38 21 22. f. 948 38 21 22
bitarte@estudiobitarte.com
www.estudiobitarte.com





Posible al da hiri bat zenbakiekin idaztea? Roma bai. R-a 3aren zati bat izan daiteke, O-ak zeroarena egiten du; M-a biratutako 3 bat da eta A hizkia 4 zenbaki gisa balio du. ROMA-30↔4. Italiako hiriburuan barna abiatu gintezke zifra eta zenbaki erromatarren erritmoa jarraituz. Hiria beste modu batean kontatzeko modua da. Hemen, Roma 1-etik 39-ra ikusten dugu, Constantinoren estatuaren behatz kementsuaren I zenbakian hasita Termini geltokian zain dagoen neska gaztearen 39. zenbakira arte.

Is it possible to write a city in numbers? Well, it is with Rome. The R can be a piece of the number 3. The O works as a zero, the M is a 3 standing on its side and the A works as a 4. 30↔4 - ROMA. One can visit Rome to the rhythm of figures and Roman numerals. In short, it's another way to recount the city. Here, you can see Rome from 1 to 39, from the imposing raised finger of the statue of Constantine as number 1 to the 39 as a young girl waiting on the platform at the Termini Station.





Baina badira gehiago, Roma ez da infinitua, baina bada hiri eternala eta kontaktak Oskar Alegriaren webgunean jarraitzen du: www.lasciudadesvisibles.com

But there's more than that; Rome is not infinite but it is eternal and the sum of it is still being added to by artist Oskar Alegria: www.lasciudadesvisibles.com

BUNKERDES

text / by: I. david zapirain II. borja izagirre

I

Surf egiten arratsaldea eman duen mutil argalak gaur ere ez du Belharra ikusterik izan; bai ordea neska lirain eta kurbadun ikusgarri bat, bere oholtza furgonetan gorde eta Sokoako bidea hartu duena.

Gure mutil argalak, eguzkitako betaurreko italiarrak hartu eta motorra abiatu du, nora joan jakin ez eta neskaren kurbak iparrorratza hartuta. Neska berriz buhameen gunean utzi du bere furgona, eta bidegurutzearen borobilaren gibelean dagoen xendran zehar desagertu da. Betaurreko italiardun mutil argala, bidexidorraren ondoan dagoen porlanezko plataforman eseri da, jakin gabe...

...1941eko bedatsean Reese teniente naziak eta Schmidt lieutenienteak buhameek presaka eta korrika hustutako gunean okupatu zutela, alimalezko tokia, inondik inora. Haien agindupean 286. Itsasarmadako artilleria batailoiak urtebeteko lana eman zuten.

Gure mutil argalaren tatuaiaren marrazkia ondo kamuflatu da porlanezko plataforman dagoen landararian. Landareak, grafitiak, freskagarri-latak, ... "non demontre eseri naiz", galdetzen dio bere buruari? "zer da hau? Bunker bat ala?..."

... bunker, blockhaus, kasamata, agindu-guneak, ... Reese eta Schmidtek, ordea, ederki asko dakite zer diren eta non kokatu gerra eraikin horiek. Harresi atlantiarraren zatia eraikitzen ari ziren. Harresiaren Ba59 gunea zen hura, eta toki honetan paratu zuten milaka lehegailu, metraileta, hegazkinen aurkako jaurtitzaila, eta abar... Bidasoa eta Aturri ibaien artean ereindakoaren zati txiki bat baino ez zen. Zertxobait urrutiago, esate baterako, Hendaiaiko hondartzan eraikitako "X" forma zuen lantxen aurkako eraikina ikus zezaketen largabistarekin. Biarritzeko solairu askotako gotorlekuak, ordea, urrun xamar gelditzen ziren. Ez, gure lagun donostiarrak ez zekien honen inguruan deus. Baina gerrarako eraikina zenak sortu arazi dion lilura neskarekiko arreata ahantzi arazi dio. Gerra hura aspaldian ahantzi egin zen bezala. Agindu-gunea eserilekua da berarentzat. Ikastolako hurrek Abadiako bunkerrak (edo dena delakoak) aspaldian hartu zituzten. Belharraren taupadak kasamata gehienen oinak jan egin zituen. Eta hondartzak altzeiruz eta sufrez zipristintzen zituzten etxe suntsituezinak, suntsituezinak dira egun. Edo hala uste zuten Reese eta Schmidtek. Reese eta Schmidtek asko zekiten, bai, baina inoiz ez zuten irudikatu euren eraikin suntsituezinak aisialdi tokiak bilakatuko zirenik, kresala usaiaz gozatzera doan jendeak grafitiz, aulkiz, kioskoz eta landarez hornituko zutela.

I

The slim young guy who has just spent the whole day surfing didn't see much of the belharra again today either. He did, however, spot the great-looking girl with the amazing curves as she put her borad away in her van and headed of down the road towards Sokoia.

Our slim young friend throws on his Italian shades and not really knowing where to go, follows the curves of the fine young thing gone before him. The girl has parked her van in the gypsy quarter and disappeared off down a pathway off the side of the roundabout. The slim young guy with the Italian shades sits down on the cement platform beside the the track. Little does he know....

...In the spring of 1941, Nazi first lieutenant Reese and lieutenant Schmidt occupied the gypsy quarter, hurriedly abandoned by its former inhabitants. A huge area. The 286th Navy Artillery Battalion spent a year on this under their orders.

The shapes in our slim young guy's tattoos are well camouflaged by the plant on the platform. The plants, graffittis, empty soft-drink cans... 'Where the hell am I after sitting down?' he asks himself. 'What is this?' 'A bunker or something?'

... bunker, blockhaus, barracks, command posts, ... Reese and Schmidt, on the contrary, know exactly what these was buildings are for and where to build them. They were building a section of the Atlantic Wall. Theirs was zone Ba59 of the wall, a just a small fraction of the thousands upon thousands of explosives, machine guns, anti-aircraft artillery and so on sewn into the land between the rivers Bidasoa and Aturri. A little further on, the 'X'- shaped wooden structures to hold back landing craft could be seen with binoculars on the beaches of Hendaye. The strongholds of Biarritz were a little too far away to be made out.

Nope, our slim young friend from Donostia knew nothing of this at all. But the interest awakened in him by the war building has caused him to forget his ardour towards the beautiful young girl. Just as that war has long been forgotten. The command post is a seat for him. The kids from the Basque school have long since taken over the bunkers (or whatever they are) at Abadia. The creeping advance of the belharra has eaten away the feet of most of these buildings. And these indestructible houses that sprinkled the beaches with steel and brimstone are still indestructible today. At least that's what Reese and Schmidt would think. Reese and Schmidt knew a lot of things, but they bnever would have imagined that their indestructible buildings would be used for people to enjoy their freetime. They never imagined that people going to enjoy the salty fresh smell of the sea would cover them in graffiti, deckchairs, magazines, newspapers and plants.



guda arkitekturak war architectures

II

